

Olentzero









Olentzero joan zaigu mendira lanera intenzioarekin ikatza egitera.

Aditu duenian Jesus jaio dala lasterka etorri da berri ematera.

Horra, horra, gure Olentzero pipa hortzetan duela eserita dago. Kapoiak ere baitu arraultzatxuekin bihar merendatzeko botila arduakin.

Olentzero buru handia entendimentuz jantzia bart arratsean edan omen du hamar arruko zahagia! Ai urde tripa handia, laralalala laralalala ai, urde tripa handia, laralalala laralalala

Horra, horra, gure Olentzero pipa hortzetan duela eserita dago. Kapoiak ere baitu arraultzatxuekin bihar merendatzeko botila arduakin.



Alaken

Alaken, alaken, ala pikula tun paire, errespundela pikula tunpa Jesus Maria Jainkoa zen. (bis)

Adiskideok! Ikusi duzue zelai horietan artzaina, artzain txiki, artzain handi, artzain mutur leuna.

Alaken, alaken...


Kas kas atean

Kas, kas, kas atean Nor dabil etxean? Ikusi makusi Nor naizen ikasi



Praka zabalak Atorra urdina Ai ene! ez dakit ezer ez, ez, ez Ai ene! Kontatu mesedez.

Kas, kas, kas atean Nor dabil etxean? Ikusi makusi Nor naizen ikasi



Mutur zikina, Txapela beltza. Ai ene! ez dakit ezer ez, ez, ez Ai ene! Kontatu mesedez.

Kas, kas, kas atean Nor dabil etxean? Ikusi makusi Nor naizen ikasi



Pipa ahoan Ardoan bertan Bai, bai, bai, lehen orain eta gero Zu zara gure **Olentzero**.

Din dan don

Din dan don, din dan don!
Eguberrion!
Zorion, zorion!
gabonak, din-dan, don!
Din dan don, din dan don!
Eguberrion!
Zorion, zorion, Gabonak Gabon!


Izar bat hasi da dizdizka zeruan
berri onak zabaltzen ari zaigu munduan.
Jaio da, jaio da, Jaunaren semea,
askatxo batean dago, lastoen gainean.

Din dan don, din dan don!
Eguberrion!
Zorion, zorion!
gabonak, din-dan, don!
Din dan don, din dan don!
Eguberrion!
Zorion, zorion, Gabonak Gabon!

Aingeruak kanta, artzain onak dantzan,
Jainkoaren jaiotzan Pakea eta Haintza!
Astoak, ja-ja-ja! Idiak, mu-mu-mu!
estalpe zaharrearantz kantuan ari zaizkigu.

Din dan don, din dan don!
Eguberrion!
Zorion, zorion!
gabonak, din-dan, don!
Din dan don, din dan don!
Eguberrion!
Zorion, zorion, Gabonak Gabon!

Antxon eta Peru, artzain buruzuri,
izarrari jarraika biak datoz arinka.
Menditik barrena, haurtxoarengana,
artzain bakoitzak darama arkumetxo bana.



Elurra teilatuan


Elurra teilatuan
zakua lepoan
ibili beharko dugu
aurtengo neguan.

Riau, riau, riau
rakataplau...

Hau duk umorea
utzi alde batera
euskaldun jendea.

Riau, riau, riau
rakataplau...

Hau duk umorea
utzi alde batera
euskaldun jendea.



Izena: _____